

**SALBATORE MITXELENA, ABERRI-MINAK ERAGINDAKO
POETA**

OTSALAR

*Zein ederra dan
olerkaritza
bihotzak min duanean!*

Aitortu zuen Salvatore Mitxelena zenak bere poema batean. Zerk mintzen zuen? Sukarrezko kristau fedeak eta aberriak mintzen zuela esango genuke.

Bere gaztaroko giroak eman zion gogoetarik aski hitzezko arte-gintzara eramateko. Gudu izigarri baten ondorea eta bere herriaren galzoriak eskaini zizkion gaiak, baina baita ere fedez larri-mindurik aurkitzeak.

Bere poemak epikoak dira gehienbat, baina lirikaz ongi jantzirik. Bertso egituretan berriz euskal kanta zaharren eta bertso-laritzaren estiloak erabili zituen, baina baita ere bertso librea, ritmoz hornitua.

Gerrak haustutako zaborretatik nekeza zitzaion lirika berri bat sortzea. Inguruan aurkitu zuen egoera latzak minberaturik eta gogo jaso nahirik eta jaso ezinezko poesietan abiatu zen. Errealismu latz batek bihotz mindurik eta ideal bati begira. Ideal hau, fedea eta Euskal-Herria. Eta, hemendik, garai hartan ezin zen atera oinazezkoa ez zenik.

Baina, oinazezko egunok, bere gogorako, bazuten gorde-leku bat: Arantzazuko Amaren itzalpea.

Hortatik sortu ziren "Arantzazu, euskal poema" (1949) liburutik hasi eta "Ama-Semeak Arantzazuko kondairan" eta "20 Kanta Arantzazuko".

Arantzaz abarotzat hartze hau, L. Villasantek dionez, Montserrateko Virolairen bertso hura ezagutu gabe izan behar zuen:

*Amb vostre nom comença nostra historia,
i es Montserrat el nostre Sinai.*

Zure izenarekin hasten da gure historia, eta Montserrat da gure Sinai.

Arantzazuko kondairen poemok izan bai ziren Salvatore zenaren lehen lanak, lehen aberriminak. Sufrikario baten aterpe Arantzazu zelarik. "Euskal-Fedea, beratan, bidazti, aldapa-gora, nora datorren jakiteke". Bere ikuspegitik eta bere gaztaro hartan hala ikusten zuen:

*Zuk zer dezu, Arantzazu!,
ames-kabi, erti-leku?...
Euskalerrria oso-osorik
kantari dijoakizu.*

Aztertzekoa litzake orduko giroa, Salvatore zenak hala ikusi zuena; herri baten hil nahieza. Zapaldukeria ere bizitzaz iraun nahirik, baina izu eta ezin aurrerapiderik aurkitu, eta ezin honek bultzatu zuen (hala deritzat) herria bera Arantzazura babes bila. Ahalmenik ez zutenek ere zerbait nahi; nahi baina ezin. Aldi ilun hura ezagutu zuen gure poetak, bere obrak hala jasoa duenez. Honegatik oitortu zuen: "honako poema hau ez dala iñorena, ez nereaa. Baizik Herriarena!".

Bere garaiko gizonarentzat kantatzen duen poetak, betiko gizonarentzat kantatzen du. Giza esistentzia ez baita belaualdi soil batena, baiik trazendentziarena, ororena, betikoa eta toki guzietakoa.

Honegatik, lan ederra egin digute bere obra guzia bi liburutik jaso dutenek. Lehen tomoa datorren ostiralean aurkeztekotan dira, Donostian bertan. Aste oroz, frantziskotarrak eratuko dituz-

ten kultur ekintzaren artean, gaur arratsaldeko 7retan izango da lehen mahai-ingurua eta etzi bigarrena, Salvatore Mitxelena pertsona eta idazle bezala adiaraziz. Behar beharrezkoa genuen hau, zeren aspaldi ezkutuegi gelditua zen euskal literaturarentzat hain garrantzitsua den autore hau, batez ere gerraondoko lehen ekintzaren eragile eta egilerik aipagarriena zenez gero.

Aldi haretan, gure poeta hau, ohartua zen transizioko poemagintzaz ari zela, bilaketa aldia zela. Honegatik beronegatik hartu zuen herritar estiloa, bertsolari nahiz koblakari eskola zaharretikoa, lokarturik zegoen herriaren iratzartzerako hain beharrezkoa. Hala ikusi bai zuen "Herri bat guruzbidean", nahi eta ezinarekin borrokan. Urte ilunak haiek, aterpe edo babes leku bat nahirik eta herria izuaren isilean. Dena zen eremu, eta eremuaren erditik Salvatoreren oihartzuna jaiki zen: "Aberriak min dit".

Beretzat, "Euskalerrria lehenago, barruko edozein alderdi baino". Gaur ere oraindik zer lezio ederra gure ikasbiderako.

Sentipen hoiegatik hartu zuen Unamunoren esaldi hura "Erri bat guruzbidean" antzekirako: "Un miserere cantado en común por una muchedumbre azotada del destino vale tanto como una filosofía". Bizitzaren sentipen trajikotik hartua dela ohartuko gara.

1954. urtean Eibarren Mixio bat eman zuen E. Agirretxeekin batean. Ohiturarik ez zuen asko hain izan zen San Andresko parrokian. Asis-koak berak ere ez dakit eibartar gehiago bildu ahal izango zuen, baina bai badakit han zen pizti bat ez zuela baretu, eta han joan zen Donostiako agintariengana salatari. Geroztik apenaz uzten zuten baketan eta asperturik joan zen Ameriketara mihiolari.

Bihotza hemen zuen batentzat ez zen aukerarik hoberena:

*Lur ezaguna utzirik
banoazu iraduz.
Zurekin bat eginda
nik atsedan, Jesus!*

Herbesteratzean argitaratu zituen "Euzko-gogoa"n "Erri bat guruzbidean" eta "Bizi nahi" (1955) poemak, lehenago idatziak nonbait, Bizkaiko guduaren poema epikoak, biziak, eta biziak haina minak. Poema bizkorra eta eraginkorra. Gure artean egin

den epikarik gailenenetako bat. Orduan ez zen zabalkundea eratzeko biderik. Ez zen ahal. Eta bere poemaren mensajeak etzuen izan hedakunderik, beste olerkari guti batzuen baitan baizik. Baina, Arantzazun han utzi zuen eskola: bere lagun Alustiza "Az-tiri", bere ikasle ziren B. Gandiaga eta A. Bilbao. Horrela, Joxe Azurmendira arte kate bat luzatuaz, eta beren frutuak poeta berri askoren emaitzetan. Salvatore gabe oso nekez edo hain aberats izango ez zena, noski.

"*Unamuno ta Abendats*" (1958), saiaera liburua, bere azken lana, aurretikoeekin lotura gabekoak itxuraz, baina funtsean honek ere zer ikusi handia du, bere barne prolematikaren eboluzioa aurkitzen delarik. Lan hau, lehen aldiz, bertsoz idatzia zuen, bertso librez gehiena, eta argitaratze orduan, zenbaiten eskariz, hitz-lauz jarri zuen, irakurgai errazagotzat. Zaitegin eskutik ezagutu nuen bertsozko hura, "Unamuno ta gu" zeritzana, eta unkiarriagoa iduritu zitzaidan. Bere taxura "Unamuno ta Abendats"en azken orrietan aurkitu genezake.

1970ean Jakin sortak elkar-lanean egindako liburu bat eskaini zigun, Salvatore Mitxelenaren bizitza eta lanak estudiatzen zituena, baina bere lan batzuk oraindik argitaratu gabeak zeuden eta beste batzuk aldizkarietan sakabanaturik. Poeta ezagutzeko, honegatik genduen hain premiagarria lan guzien bilduma hau. Are gehiago, poeta bera aldi berezi baten sen e eta adiarazle zen aldetik.

Zarautzen sortua zen, 1919an. Arantzazu, Forua eta Oliten egin zituen ikasketak. 1954. urtearen azkenaldera joan zen Ameriketara eta handik Suiza-ra 1962an eta hiru urte barru hil zen La Chaux-de-Fonds hirian 46 urte zituela.

Herriari herritar eskolatik hain bikain kantatzen jakin zuen poeta bihotz mindua, egoera latzean, etsi ezinez, atsekabeturik joan zitzaidun. "Aberriak min dit eta miñak olerki...". Eta maitasunez sufritu eragin zion herritik urruti, arrotzen lur hotzetan aurkitu zuen heriotzak. Gure literaturan ongi merezia du ohorezko lekua.

*Urretxindor kantaria
baso-basoan gordia
gau eta egun ospatzen da ari
maiteño ta habia.*

* * *

Salbatoren Mitxelenaren *Idazlan guztiak*, I, K. Iturria eta J. A. Gandarias-ek argitaratua kalean dugu. Lehen tomo honetan Olerki umezurtzak, Aberriak min dit eta miñak olerki, 1936 ezkerro, Guruzbidea, Euskal samiñaren guruzbidea, Arraun eta amets, Erri bat guruzbidean, Confixus eta Unamuno ta Abendats direlako lanak biltzen ditu. Hain ongi burututako liburu honek J. A. Gandariasen Aintzin solasez hasi eta J. Azurmendiren Salvatore Mitxelenaren bere lekuzatze saiera labur eta A. Agirretxeren Mitxelenarekin pentsaketan, zein baino zein saiaera politagoak dira.

Idazlan guztiak deritzan liburu hau kontuan hartu gabe oso nekeza litzaziguke gerra osteko euskal literaturaren ekintza beraren hastapenak ezagutzea.